

Consulta de Documento

Archivo del documento

[PARA LA FIRMA DE IDOIA oficio y texto biling.pdf](#)

Descripción

PROYECTO DE LEY DE PAISAJE DEL PAÍS VASCO

Creador

Cortés Larramendi, Carmen

Cargo firmante

MENDIA CUEVA, IDOIA

Fecha modificación

27/01/2012



Firmado digitalmente por

IDOIA MENDIA CUEVA

Aceptar

ANDRE HORI:

EXCMA. SRA.:

Honako hau jakinarazten dizut: Eusko Jaurlaritzak, 2012ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, **Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaiaren LEGE PROIEKTUA** onartu du.

Tengo el honor de comunicar a V.E. que el Gobierno Vasco, en Sesión celebrada el día 24 de enero de 2012, ha procedido a la aprobación del **PROYECTO DE LEY del Paisaje del País Vasco**.

Hori ziurtatu egiten dut eta, Jaurlaritzak erabakitakoa betez, horren berri ematen dizut, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean exijitutakoaren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko otsailaren 3an hartutako Erabakian -lege proiektuekin batera Eusko Legebiltzarrera bidali behar diren agiriak zehazten dituen xedatutakoaren arabera.

Lo que certifico y, en cumplimiento de lo acordado por el Gobierno, traslado a V.E., de conformidad con lo exigido por la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y con lo dispuesto en el Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno el día 3 de febrero de 2004, por el que se determinan los documentos que deberán remitirse al Parlamento Vasco junto con los Proyectos de Ley.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 27a.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de enero de 2012.

Idoia Mendia Cueva

SECRETARIA DEL GOBIERNO
JAURLARITZAKO IDAZKARIA

**EXCMA. SRA. PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO/
EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA**

II

TEXTO DEL PROYECTO DE LEY EN CASTELLANO /
LEGE PROIEKTUAREN TESTUA GAZTELANIAZ.

PROYECTO DE LEY DE PAISAJE DEL PAÍS VASCO.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PAISAIAREN LEGE PROIEKTUA

PROYECTO DE LEY DE PAISAJE DEL PAÍS VASCO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El País Vasco goza de una gran riqueza y diversidad de paisajes. Su situación geográfica, a caballo entre el mundo atlántico y el mediterráneo, la geología, la cambiante orografía, y el clima se suman a otros factores naturales; fuerzas todas ellas junto a las que la acción humana ha creado, y continua creando, una riqueza y diversidad paisajística ciertamente excepcional. Esta diversidad de paisajes constituye un recurso y un patrimonio común de interés general desde el punto de vista ambiental, cultural, social, histórico, y de desarrollo económico; y está adquiriendo una consideración creciente en el conjunto de los valores que demanda la sociedad.

El paisaje es un elemento esencial del bienestar individual y colectivo, y de la calidad de vida de las personas, y contribuye al mismo tiempo a conformar la identidad del territorio. El paisaje es un elemento dinámico que refleja la relación de la población con su entorno a lo largo del tiempo, y, por ello, su conservación no debe ir encaminada a preservar intacta su imagen, sino a mantener y mejorar su calidad y diversidad, sin dejar por ello de integrar nuevos elementos y usos. Y es que las transformaciones del territorio, y por ende del paisaje, son consustanciales a la actividad humana. Por eso, de lo que fundamentalmente se trata es de fomentar una evolución armónica del paisaje y de considerar e integrar los valores del paisaje en las intervenciones sobre el territorio.

Sin embargo, la evolución de los paisajes no siempre ha respetado sus valores. Así, en algunos casos, la intensa y acelerada transformación territorial, fundamentalmente en las últimas décadas, ha traído consigo la pérdida de significado, la simplificación, la uniformización, y en definitiva, la degradación de algunos paisajes. En un contexto de un territorio muy antropizado y en concreto urbanizado, adquieren singular relevancia la mejora de los paisajes degradados y de periferia urbana y la mejora del paisaje percibido desde los ejes de comunicación, junto con el medio rural con sus núcleos y los paisajes más naturales.

Es necesario tomar conciencia de ello. De ahí que resulte especialmente interesante que se dirijan esfuerzos a la propuesta y difusión de buenas prácticas y ejemplos de paisajes que sean el reflejo de una relación equilibrada y armoniosa entre las necesidades sociales, la economía y el medio ambiente, y que se extienda la cultura de sensibilización y conciencia respecto del valor del paisaje.

Por supuesto no se parte de cero. En los últimos años, las administraciones vascas han empezado a tomar en consideración al paisaje, de modo que existen documentos normativos, planes y estrategias en materia de ordenación territorial, protección del medio ambiente, conservación de la naturaleza, desarrollo rural, o desarrollo sostenible, así como catálogos que se ocupan del paisaje, si bien lo hacen de forma parcial y dispersa.

Las administraciones vascas también han desarrollado en las últimas décadas valiosas herramientas para el conocimiento de los paisajes, han puesto en marcha mecanismos para su protección, y fomentan la investigación y la formación de especialistas; pero en ausencia de un marco común que guiara sus actuaciones.

En ese contexto, mediante Acuerdo de Gobierno, de 21 de julio de 2009, la Comunidad Autónoma del País Vasco se adhirió formalmente al Convenio Europeo del Paisaje, que fue aprobado por el Consejo de Europa el 20 de octubre de 2000 y, en consecuencia, asumió los compromisos que la citada adhesión comporta, entre los que destaca el de reconocer jurídicamente los paisajes como elemento fundamental del entorno humano, expresión de su patrimonio común cultural y natural y como fundamento de su identidad. El Convenio tiene por objeto tanto a los paisajes que puedan considerarse excepcionales como a los paisajes cotidianos o degradados, y establece “que su protección, gestión y ordenación implican derechos y responsabilidades para todos y todas”.

La presente norma se conforma en el preciso rango de texto legal, y como tal Ley tiene por objeto dar contenido a esa adhesión, creando el marco de referencia válido para que las administraciones vascas definan y apliquen políticas en materia de paisaje. En definitiva, lo que se persigue es dotar a los paisajes vascos del reconocimiento jurídico pertinente y de establecer los correspondientes instrumentos para su gestión y mejora.

La Ley une el paisaje con la ordenación del territorio y lo vincula formalmente con las figuras de ordenación territorial y en concreto con los planes territoriales parciales previstos en la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

La Ley se adapta a la terminología internacional en materia de paisaje definida por el Convenio Europeo del Paisaje y se estructura en tres capítulos.

El primero, titulado “Disposiciones generales”, establece el objeto de la Ley, refiriéndose a la integración del paisaje en las políticas de ordenación territorial y urbanística, y en las políticas sectoriales que incidan en el mismo. En consonancia con este objetivo, el ámbito de aplicación de la presente Ley abarca la totalidad del territorio del País Vasco, tanto las zonas más naturales como las más intensamente humanizadas. El paisaje se define como “cualquier parte del territorio, tal como la percibe la población, cuyo carácter es el resultado de la acción e interacción de factores naturales y/o humanos”.

El paisaje no atiende a divisiones administrativas, de ahí que resulte imprescindible la colaboración y coordinación entre las administraciones para el adecuado desarrollo de las políticas de paisaje. En las disposiciones generales también se establecen los principios que

deben guiar las actuaciones de los poderes públicos en materia de paisaje, las políticas de paisaje, así como la tipología de las actuaciones sobre el paisaje y los fines pretendidos.

El segundo capítulo se ocupa de los instrumentos para la protección, gestión y ordenación del paisaje. De esta forma, se crean los catálogos del paisaje, como documentos que analizan y evalúan los paisajes de Euskadi en cada una de sus áreas funcionales, y que proponen objetivos de calidad para los mismos. También se establecen las directrices del paisaje, como instrumentos para incorporar normativamente las propuestas de objetivos de calidad paisajística al planeamiento territorial. Por su parte, los planes de acción del paisaje se basan en los dos instrumentos mencionados para definir acciones concretas dirigidas a gestionar los paisajes. Finalmente, se crean los estudios de integración paisajística, que son los documentos técnicos cuya finalidad es considerar las consecuencias que la ejecución de proyectos de obras y/o actividades tienen sobre el paisaje, y de establecer las medidas precisas para su adecuada integración.

El capítulo tercero trata sobre los instrumentos de organización, sensibilización y concertación de las políticas de paisaje. Se crea el Observatorio del Paisaje, como entidad de apoyo y colaboración con la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en todas las cuestiones relacionadas con la elaboración, aplicación y gestión de las políticas de paisaje. La Ley también establece el compromiso del Gobierno Vasco para fomentar la sensibilización en materia de paisaje, y para promover la integración del paisaje en la educación y la formación de especialistas. Finalmente, se establece que las intervenciones paisajísticas acordes con los fines de la Ley podrán tener acceso a financiación pública, y se fijan las condiciones a cumplir para ello.

En las disposiciones finales se autoriza al Gobierno Vasco para dictar las normas de desarrollo de la presente Ley.

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Objeto.

1.- La presente Ley tiene por objeto la protección, la gestión y la ordenación de los paisajes del País Vasco a fin de preservar sus valores naturales, ambientales, culturales, sociales y económicos en un marco de desarrollo sostenible.

2.- La Ley impulsa la integración del paisaje en las políticas de ordenación territorial, urbanística y en todas las políticas sectoriales que incidan en el mismo.

Artículo 2.- Definición de paisaje.

Se entiende por paisaje, a los efectos de esta Ley, cualquier parte del territorio, tal como la percibe la población, cuyo carácter es el resultado de la acción e interacción de factores naturales y/o humanos.

Artículo 3.- Ámbito de aplicación.

1.- Las disposiciones de la presente Ley son de aplicación en el conjunto del territorio del País Vasco.

2.- El ámbito de aplicación de la presente Ley abarca tanto las áreas naturales como las zonas rurales, urbanas o periurbanas; comprendiendo las zonas terrestres, costeras y las aguas interiores.

Artículo 4.- Principios.

Los principios que deben guiar la actuación de los poderes públicos en materia de paisaje son:

- a) El reconocimiento jurídico del paisaje como un elemento del bienestar individual y colectivo que, además de valores estéticos y ambientales, tiene una dimensión económica, cultural, social, patrimonial e identitaria.
- b) Fomentar la evolución armónica del paisaje, a través de la utilización racional del territorio, del desarrollo urbanístico sostenible y de la conservación de la funcionalidad de los ecosistemas.
- c) Considerar las consecuencias paisajísticas de las intervenciones sobre el territorio, valorar sus efectos y adoptar las medidas precisas para su adecuada integración en el paisaje.
- d) Promover el acceso a la información acerca del paisaje y el intercambio de experiencias y de técnicas cuyo origen sean las iniciativas y proyectos relacionados con la protección, la gestión y la ordenación del paisaje.
- e) La coordinación y la colaboración entre las diversas administraciones vascas y entre éstas y la iniciativa privada en materia de paisaje.
- f) La sensibilización de las personas, de las organizaciones privadas y públicas respecto al valor de los paisajes, sus funciones y los procesos de transformación a los que se ven sometidos.

g) El impulso a la participación de la sociedad en las políticas de paisaje, especialmente de los agentes sociales y económicos, asociaciones de defensa del patrimonio natural y cultural, colegios profesionales, universidad y centros de investigación.

h) El fomento de la formación en materia de paisaje.

Artículo 5.- Políticas de paisaje.

1.- Los poderes públicos adoptarán las medidas necesarias para la protección, la gestión y la ordenación de los paisajes.

2.- Las administraciones vascas integrarán, desde sus respectivos ámbitos competenciales, el paisaje en las políticas de ordenación territorial y urbanística, de transportes e infraestructuras, industrial, agraria, forestal, ganadera, turística, de conservación de la naturaleza y, en general, en cualquier otra política sectorial con incidencia sobre el paisaje.

Artículo 6.- Tipología de actuaciones sobre el paisaje.

1.- Las actuaciones sobre el paisaje serán resultado de la aplicación de acciones para la protección, la gestión y la ordenación del paisaje.

2.- Son actuaciones de protección del paisaje las dirigidas a la conservación y el mantenimiento de los aspectos significativos o característicos de un paisaje, justificadas por su valor patrimonial derivado de su configuración natural o de la intervención humana.

3.- Son actuaciones de gestión del paisaje las dirigidas a garantizar el mantenimiento regular de un paisaje, desde una perspectiva de desarrollo sostenible, con el fin de guiar y armonizar las transformaciones inducidas por los procesos sociales, económicos y ambientales.

4.- Son actuaciones de ordenación del paisaje las que presentan un carácter marcadamente prospectivo con el fin de restaurar, mejorar o crear paisajes.

5.- En cada área objeto de actuación, el equilibrio entre los tres tipos de actuaciones sobre el paisaje dependerá del carácter del área y de los objetivos que se hayan acordado para la misma.

Artículo 7.- Cooperación en política de paisaje.

1.- El Gobierno Vasco impulsará el desarrollo de políticas de paisaje coordinadas entre las distintas administraciones vascas para asegurar el cumplimiento de los fines de la presente Ley.

2.- El Gobierno Vasco impulsará el acuerdo con otras administraciones para establecer programas paisajísticos comunes en las áreas en que se considere conveniente.

Artículo 8.- Fines de las actuaciones sobre el paisaje.

Las actuaciones que se ejecuten sobre el paisaje pueden tener, entre otros, los siguientes fines:

- a) La conservación de los paisajes que, por su carácter natural o cultural, requieran actuaciones específicas e integradas.
- b) La mejora paisajística del ámbito urbano, especialmente de las periferias y de las vías de acceso a los núcleos de población.
- c) El mantenimiento, mejora y restauración de los paisajes en el ámbito rural.
- d) La articulación armónica de los paisajes, con una atención particular hacia los paisajes más accesibles para el conjunto de la población así como los espacios de contacto entre los ámbitos urbano y rural y entre los ámbitos terrestre y marino.
- e) La adecuada integración paisajística de las intervenciones sobre el territorio, especialmente las correspondientes a infraestructuras y a áreas de actividad económica.
- f) La puesta en valor y protección del paisaje por parte de las administraciones locales y las entidades privadas.
- g) La atribución de valor al paisaje como factor económico diferenciador y recurso turístico.

CAPÍTULO II INSTRUMENTOS PARA LA PROTECCIÓN, GESTIÓN Y ORDENACIÓN DEL PAISAJE

Artículo 9.- Instrumentos para la protección, gestión y ordenación del paisaje.

La presente Ley establece los siguientes instrumentos para garantizar una adecuada protección, gestión y ordenación de los paisajes de la Comunidad Autónoma del País Vasco:

- a) Catálogos del paisaje.
- b) Directrices del paisaje.
- c) Planes de acción del paisaje.
- d) Estudios de integración paisajística.

Artículo 10.- Catálogos del paisaje.

1.- Los catálogos del paisaje son los documentos de carácter descriptivo y prospectivo que abarcan la totalidad del paisaje de cada área funcional de la Comunidad Autónoma del País Vasco definidas en las Directrices de Ordenación del Territorio.

2.- La elaboración de los catálogos del paisaje se realizará sobre la base de una adecuada participación de los sectores públicos y privados, y podrá tener en cuenta el conocimiento existente acerca de los paisajes de cada Área Funcional, en particular, el derivado de las políticas y actuaciones en materia de paisaje por parte de las administraciones vascas.

3.- Los catálogos del paisaje guardarán coherencia y continuidad con los de las áreas funcionales contiguas.

4.- Los catálogos del paisaje de cada área funcional se incorporarán a las directrices del paisaje, y se tramitarán y aprobarán junto a éstas.

Artículo 11.- Contenido de los catálogos del paisaje.

Los catálogos del paisaje tendrán, como mínimo, el siguiente contenido:

a) La identificación, delimitación y caracterización de las cuencas visuales y de las texturas paisajísticas presentes en cada área funcional, entendidas respectivamente como las unidades territoriales relativamente homogéneas utilizando criterios de visibilidad a una determinada escala, y como las unidades territoriales relativamente homogéneas utilizando criterios de percepción para una determinada escala y grado de definición.

b) La identificación de las áreas de especial interés paisajístico, en función de uno o varios de los siguientes criterios:

- 1. por su singularidad,
- 2. por constituir ejemplos representativos de los tipos de paisaje raros o amenazados,

3. por su fragilidad,
 4. por su especial deterioro o degradación,
 5. por constituir zonas muy visibles para la población,
 6. por contribuir de forma decisiva a conformar la identidad del área funcional, o,
 7. por presentar cualidades sobresalientes en los aspectos perceptivos y estéticos, fruto de la especial interacción entre sus componentes naturales y/o humanos.
- c) La identificación de las actividades, los usos y los procesos que incidan o hayan incidido de forma más notoria en la configuración actual del paisaje.
- d) La localización espacial de las principales rutas y los lugares desde los que se perciba el paisaje.
- e) La delimitación de las unidades de paisaje, entendidas como aquellos ámbitos paisajísticamente coherentes sobre los que pueda recaer, en parte o totalmente, un régimen específico de protección, gestión u ordenación del paisaje.
- f) La definición de los objetivos de calidad paisajística, los cuales deben expresar las aspiraciones de la colectividad en cuanto a las características paisajísticas de su entorno.
- g) La propuesta de las medidas y acciones necesarias para alcanzar los objetivos de calidad paisajística fijados.
- h) La propuesta de los indicadores de carácter paisajístico que permitan evaluar la efectividad de las medidas y acciones que se establezcan para alcanzar los objetivos de calidad paisajística fijados.

Artículo 12.- Directrices del paisaje.

1.- Las directrices del paisaje son las determinaciones que, basándose en los catálogos del paisaje, precisan e incorporan normativamente, con carácter vinculante o, en su caso, simplemente recomendatorio, en los correspondientes planes territoriales parciales las propuestas de objetivos de calidad paisajística y las medidas y acciones específicas para alcanzarlos.

2.- Los planes territoriales parciales contendrán necesariamente entre sus determinaciones las directrices del paisaje.

Artículo 13.- Planes de acción del paisaje.

- 1.- Los planes de acción del paisaje son las herramientas de gestión que, basándose en los catálogos del paisaje y en las directrices del paisaje, concretan las acciones a llevar a cabo en el marco de las actuaciones para la protección, la gestión y la ordenación del paisaje.
- 2.- Se deberán elaborar planes de acción del paisaje para las áreas de especial interés paisajístico identificadas en los catálogos del paisaje, sin descartar que puedan elaborarse en otros ámbitos.
- 3.- Los planes de acción del paisaje podrán redactarse y ejecutarse en el marco de instrumentos de concertación entre los agentes públicos y privados.
- 4.- Corresponderá la elaboración, aprobación y ejecución del plan de acción del paisaje al órgano u órganos encargados de la gestión del ámbito.
- 5.- El órgano encargado de la elaboración del plan de acción del paisaje garantizará la adecuada participación pública.
- 6.- Los planes de acción del paisaje enumerarán las acciones a llevar a cabo en su ámbito y, para cada una de estas, como mínimo:
 - a) determinarán las personas responsables de su ejecución y seguimiento,
 - b) fijarán los plazos para su desarrollo,
 - c) detallarán su presupuesto y financiación.
- 7.- Los planes de acción del paisaje incluirán un programa para el seguimiento sobre el grado de cumplimiento de las acciones y para la evaluación de sus resultados.

Artículo 14.- Estudios de integración paisajística.

- 1.- Los estudios de integración paisajística son los documentos técnicos destinados a considerar las consecuencias que tiene sobre el paisaje la ejecución de proyectos de obras y actividades, así como a exponer los criterios y las medidas adoptadas para la adecuada integración de las obras y actividades en el paisaje.
- 2.- El estudio de integración paisajística se requerirá en los siguientes supuestos:
 - a) En las actuaciones a las que se refiere el artículo 28.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

- b) En los supuestos en que así se requiera por el planeamiento territorial o urbanístico.
- c) En todos aquellos supuestos en que así lo establezca cualquier ley o disposición de carácter general.

3.- Corresponde a la Administración competente para la aprobación o autorización de la ejecución del proyecto de obras o actividades, la evaluación del estudio de integración paisajística y la determinación de los criterios y medidas que deben ser adoptadas para la adecuada integración de la obra o actividad en el paisaje.

4.- Reglamentariamente se establecerá el contenido de los estudios de integración paisajística.

CAPÍTULO III INSTRUMENTOS DE ORGANIZACIÓN, SENSIBILIZACIÓN Y FOMENTO DE LAS POLÍTICAS DE PAISAJE

Artículo 15.- El Observatorio del Paisaje.

1.- Se crea el Observatorio del Paisaje como un órgano consultivo de apoyo y colaboración con la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, adscrito al Departamento competente en materia de ordenación del territorio, en todas las cuestiones relacionadas con la elaboración, aplicación y gestión de las políticas de paisaje.

2.- La composición del Observatorio del Paisaje debe comprender una amplia representación de los diversos agentes que actúan sobre el territorio y el paisaje o que están relacionados con el mismo. En concreto, deben estar representados los departamentos del Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales, los Ayuntamientos y otras entidades locales, así como los sectores sociales, profesionales y económicos.

3.- Son funciones del Observatorio del Paisaje:

- a) Aprobar cada cuatro años un informe sobre el estado del paisaje en Euskadi incluyendo un diagnóstico de situación y una valoración del cumplimiento de los objetivos y estrategias planteados. Dicho informe se remitirá al Parlamento Vasco.
- b) Informar preceptivamente los catálogos y directrices del paisaje.
- c) Las relativas a la prestación de asesoramiento científico-técnico.

- d) Formar, sensibilizar y concienciar a la sociedad vasca en la necesidad de proteger, gestionar y ordenar debidamente nuestros paisajes.
- e) Realizar propuestas en materia de paisaje.
- f) Estimular la colaboración científica y académica en materia de paisaje, así como los intercambios de trabajos y experiencias entre especialistas y expertos de universidades y otras instituciones académicas y culturales.
- g) Cualquier otra que comprendan los principios y fines de esta Ley.

Artículo 16.- Medidas de sensibilización, educación y apoyo.

- 1.- Las administraciones vascas fomentarán la sensibilización de la sociedad, organizaciones privadas y poderes públicos en relación con los principios y fines de la presente Ley.
- 2.- El Gobierno Vasco promoverá la consideración del paisaje en los programas de los diversos niveles educativos y, en particular, en los destinados a la formación de especialistas. Asimismo, debe fomentar el intercambio de experiencias y debe dar apoyo a los proyectos de investigación y de difusión de los conocimientos sobre el paisaje.
- 3.- El Gobierno Vasco, en el ámbito de sus competencias y en función de los recursos disponibles, potenciará las actividades de las administraciones locales y forales, y de las diversas organizaciones públicas y privadas que lleven a cabo actuaciones de promoción y protección del paisaje.

Artículo 17.- Ayudas y subvenciones.

- 1.- La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi podrá financiar mediante ayudas y subvenciones las intervenciones paisajísticas desarrolladas por entidades públicas o privadas de acuerdo con los principios y fines establecidos por la presente Ley y por la normativa que se dicte para su desarrollo.
- 2.- Por vía reglamentaria se regularán los requisitos de acceso a la financiación pública que deben cumplir las intervenciones paisajísticas.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

- 1.- Las directrices del paisaje deberán incorporarse a los planes territoriales parciales ya aprobados definitivamente a la entrada en vigor de esta Ley. Para ello, deberán tramitarse y

aprobarse en el plazo máximo de cuatro años, siguiendo el procedimiento de aprobación del Plan Territorial Parcial sin fase de Avance, previsto en el artículo 13 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

2.- Por su parte, los planes territoriales parciales que se encuentren aprobados inicialmente a la entrada en vigor de la presente Ley, podrán continuar su tramitación sin la incorporación de las directrices del paisaje, y hacerlo tras su aprobación definitiva en los mismos plazos y condiciones que aquellos a los que se refiere el apartado anterior.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- El Gobierno Vasco dictará en el plazo de 2 años las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Ley.

Segunda.- La presente Ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en Boletín Oficial del País Vasco.

III

TEXTO DEL PROYECTO DE LEY EN EUSKERA /
LEGE PROIEKTUAREN TESTUA EUSKARAZ.

PROYECTO DE LEY DE PAISAJE DEL PAÍS VASCO.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PAISAIAREN LEGE PROIEKTUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PAISAIAREN LEGE- PROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko paisaiak aberatsak eta askotarikoak dira. Atlantikoaren eta Mediterraneoaren arteko kokaleku geografikoa, geologia, orografia aldakorra eta klima dira, besteak beste, paisaia horien eragile naturalak; eta, horiek alde batetik, eta giza ekintzak bestetik, paisaia aberatsa eta askotarikoa izatea eragin dute eta eragiten ari dira, zinez aparteko eran aberatsa eta askotarikoa. Paisaia-aniztasun hori interes orokorreko baliabide eta ondare erkidea ere bada ingurumenaren, kulturaren, gizartearen, historiaren eta garapen ekonomikoaren aldetik ikusita. Horrez gain, gizarteak eskatzen dituen balioen artean ere, geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari da.

Paisaia funtsezkoa da gizabanakoen eta gizataldeen ongizaterako, bai eta pertsonen bizikalteterako ere, eta, gainera, aldi berean, lurraldearen nortasuna eratzen laguntzen du. Paisaia elementu dinamikoa da, herritarrek inguruarekin denboran zehar izan duten harremana islatzen du, eta, hori dela eta, paisaia kontserbatzeko orduan, xedea ez da paisaiaren irudia ezin ukitutuz edukitzea, baizik eta paisaiaren kalitate eta aniztasunari eutsi eta hobetzea, elementu eta erabilera berriak integratzeari uko egin gabe. Izan ere, giza ekintzak berekin dakar lurraldea eta are paisaia ere transformatzea. Hala bada, funtsean, paisaiaren eboluzio harmoniatsua eragitea da kontua, eta paisaiaren balioak aintzat hartu eta integratzea lurraldearen gaineko ekintzetan.

Nolanahi ere, paisaien eboluzioak ez ditu beti paisaiaren balioak errespetatu izan. Batzuetan, batez ere azken hamarraldiotan, lurraldea hainbeste transformatu izan da, hain bizkor aldatu, non zenbait paisaiaren esanahia galtzea eragin baita, zenbait paisaia sinplifikatzea, berdintzea, eta, azken batean, degradatzea. Lurraldea hain antropizaturik egonik, hain urbanizaturik, bereziki garrantzitsua da paisaia degradatuak eta aldirietako paisaiak hobetzea, bai eta komunikazio-ardatzetatik ikusten den paisaia ere, landa-ingurua eta bertako herriguneak eta paisaia naturalak ahaztu gabe.

Ezinbestekoa da horretaz guztiaz jabetzea. Horrexegatik egin behar dira ahaleginak jokabide egokiak eta paisaia-ereduak proposatu eta zabaltzeko, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harreman orekatu eta harmoniatsuaren isla izango diren jokabideak eta paisaia-ereduak, alegia; orobat egin behar dira ahaleginak paisaiaren balioari buruzko sentiberatze eta kontzientziaren kultura hedatzeko.

Jakina, ez gara hutsetik abiatzen. Azken urteotan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak hasi dira paisaia aintzat hartzen, eta, beraz, orain badira lurralde-antolamendu, ingurumenaren babes, naturaren kontserbazio, landa-ingurunearen garapen edo garapen iraunkorraren arloetan araugintza-agiriak, planak eta estrategiak, paisaia aintzat hartzen dutenak, bai eta paisaiari buruzko katalogoak ere, nahiz eta partez eta han eta hemen barreiaturik izan.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek, azken hamarraldiotan, tresna baliotsuak sortu dituzte paisaiari buruzko ezagutza biltzeko, bitartekoak jarri dituzte hura babesteko, eta, gainera, ikerketa eta espezialisten prestakuntza sustatu dute, baina horien jardunak gidatzeko esparru orokorrik gabe.

Hala, Euskal Autonomia Erkidegoa, Jaurlaritzaren 2009ko uztailaren 21eko erabakia medio, Europako Kontseiluak 2000ko urriaren 20an onartutako Paisaiaren Europako Hitzarmenari formalki atxiki zitzaion. Ondorioz, hitzarmen horri atxikitzeak dakartzan konpromisoak hartu zituen bere gain, eta horien artean dago paisaia juridikoki aintzat hartzea giza ingurunearen funtsezko osagai gisa, alegia, kultura- eta natura-ondare erkidearen adierazpide gisa, bai eta giza ingurunearen identitatearen oinarri gisa. Hitzarmenak xede ditu bai apartekotzat jo litezkeen paisaiak, bai paisaia arruntak edo narriatuak, eta dio "hura babestu, kudeatu eta antolatzeak guztiontzat dakartzala eskubideak eta erantzukizunak."

Arau honi legearen maila ematen zaio, eta, lege gisa, hitzarmen horrekiko atxikipena edukiz betetzea du xedetzat, erreferentzia-esparru baliaduna ezarriz Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek paisaiaren arloko politikak zehaztu eta aplika ditzaten. Azken batean, Euskal Autonomia Erkidegoko paisaia juridikoki aintzat hartzea, bidezkoa den gisan, eta paisaia kudeatzeko eta hobetzeko tresnak ezartzea du helburutzat.

Legeak lurralde-antolamenduarekin batzen du paisaia, eta lurralde-antolamenduko tresnekin lotzen du formalki, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzkoa maiatzaren 31ko 4/1990 Legean aurreikusitako lurralde-plan partzialekin.

Legeak bere egiten du Paisaiaren Europako Hitzarmenak ezarritako paisaiaren nazioarteko terminologia. Bestalde, hiru kapitulu ditu.

Lehenbizikoan, "xedapen orokorrak" izenekoan, legearen xedea ezartzen da; paisaia lurralde-antolamenduko eta hirigintzako politikan eta paisaiari eragiten dioten politika sektorialetan integratzeaz ari da. Xede horrekin bat, lege honen aplikazio-eremuan Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoa sartzen da, hala ingurune naturalenak nola gizakiaren eragin handia jasan dutenak. Paisaiaren definizioa ematen du: "*lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita*".

Ez dio eragiten paisaiari administrazio-barrutien zatiketak, eta, hori dela eta, ezinbestekoa da administrazioen arteko elkarlana eta koordinazioa paisaiari buruzko politikak behar bezala garatzeko. Xedapen orokorretan printzipioak ere ezartzen dira, botere publikoen gidalerro izateko paisaiaren arloan jarduten direnean; orobat zehazten dira paisaia-politikak eta paisaiaren gaineko jardun-motak eta jardun horien xedek.

Bigarren kapitulua paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko tresnez ari da. Hala, paisaiaren katalogoak sortzen dira; agiriok Euskadiko eremu funtzional bakoitzeko paisaiak aztertzen eta ebaluatzen dituzte, eta paisaia horiek bete beharreko kalitate-helburuak proposatzen. Paisaiari buruzko gidalerroak ere ezartzen dira, paisaiaren kalitate-helburuen proposamenak lurralde-antolamenduan arau gisa txertatzeko tresnatzat. Bestalde, paisaiaren arloko ekintza-planak beste bi tresna horietan oinarritzen dira paisaiak kudeatzeko ekintza zehatzak definitzeko. Azkenik, paisaia-integrazioko azterlanak sortzen dira; agiri teknikoak dira, obra- eta/edo jarduera-proiektuak gauzatzean paisaiari eragingo zaizkion ondorioak neurtzearen eta proiektu horiek behar bezala integratzeko neurri zehatzak ezartzearen egin beharrekoak.

III. kapitulua paisaia-politikak antolatzeko, paisaia-politikei buruz sentiberatzeko eta paisaia-politikak hitzartzeko tresnez ari da. Paisaiaren Behatokia sortzen da, paisaia-politikak landu, aplikatu eta kudeatzearekin zerikusia duten kontu guztietan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari laguntzeko eta harekin elkarlanean aritzeko erakundetzat. Halaber, legeak konpromisoa ezartzen dio Eusko Jaurlaritzari paisaiari buruzko sentiberatzea susta dezan eta paisaia espezialisten heziketan eta prestakuntzan sar dezan. Azkenik, paisaiaren gaineko ekintzek, legearen helburuekin bat etorri gero, finantzaketa publikoa izateko aukera izango dutela ezartzen da. Horretarako bete beharko diren baldintzak ere zehazten dira.

Azken xedapenetan baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari Lege hau garatzeko arauak eman ditzan.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Objektua.

1.- Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko paisaiak babestu, kudeatu eta antolatzea, naturaren, ingurumenaren, kulturaren, gizartearen eta ekonomiaren aldetik dituzten balioak gordetzearen, betiere garapen iraunkorraren barruan.

2.- Legeak bultzatzen du paisaia lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren antolamenduaren politiketan eta paisaiari eragiten dioten politika sektorial guztietan integratzea.

2. artikulua.- Paisaiaren definizioa.

Lege honen ondorioetarako, paisaia da lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edo giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita.

3. artikulua.- Aplikazio-eremuak.

1.- Lege honetako xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan dira aplikatzekoak.

2.- Lege honen aplikazio-eremuan sartzen dira hala eremu naturalak nola landa-eremuak, hiri-eremuak nahiz aldiriak, lehorreko zonak, itsasaldeko zonak eta barruko urak ere barne direla.

4. artikulua.- Printzipioak.

Botere publikoek paisaiaren arloan gauzatuko duten jardunak honako printzipio hauek izango ditu gidari:

a) Paisaia, zor zaion gisan, juridikoki aintzat hartzea, gizabanakoen eta gizataldeen ongizatearen osagai den aldetik, eta, estetikari eta ingurumenari dagozkien balioez gain, ekonomiarekin, kulturarekin, gizartearekin, ondarearekin eta identitatearekin lotutako alderdiak dituen gero.

b) Paisaiaren eboluzio harmoniatsua eragitea, lurraldea arrazoizko eran erabiliz, hirigintza-garapen iraunkorraren bidez eta ekosistemen funtzionalitatea kontserbatuz.

c) Lurraldean egitekoak diren ekintzek paisaiari eragingo dizkieten ondorioak aintzat hartzea, eraginak baloratzea eta eragin horiek paisaian egokiro integratzeko behar diren neurriak ezartzea.

d) Paisaiari buruzko informazioa eskuratzeko modua sustatzea, eta orobat paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearekin zerikusia duten ekimen eta proiektuetako esperientzia eta tekniken trukea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio batzuen eta besteen arteko koordinazioa eta elkarlana paisaiaren arloan, baita administrazio horien eta ekimen pribatuaren artekoa ere.

f) Paisaien balioei, funtzioei eta jasaten dituzten transformazio-prozesuei buruzko sentiberatasuna eragitea pertsoneri eta erakunde pribatuei eta publikoei.

g) Gizarteak paisaia-politiketan parte har dezan bultzatzea, bereziki eragile sozial eta ekonomikoek, natura- eta kultura-ondarea babesten duten elkarrekin, lanbide-elkargok, unibertsitateek eta ikerketa-zentroek.

h) Paisaiaren arloko prestakuntza sustatzea.

5. artikulua.- Paisaia-politikak.

1.- Botere publikoek paisaiak babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko behar diren neurriak ezarriko dituzte.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek, zeinek bere eskumen-esparruan, lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren politiketan, garraio eta azpiegituren politiketan, industria-politikan, nekazaritza-politikan, basogintza-politikan eta natura zaintzeko politikan integratuko dute paisaia; oro har, eragiten dion politika sektorial orotan.

6. artikulua.- Paisaiaren gaineko jardunen tipologia.

1.- Paisaiaren gaineko jardunek paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko ekintzen emaitza izan behar dute.

2.- Paisaia babesteko jardunak dira paisaia baten alderdi esanguratsuak edo bereizgarriak kontserbatu eta mantentzeko egiten direnak, konfigurazio naturalaren edo gizakiaren ekintzen ondorioz duen ondare-balioagatik.

3.- Paisaia kudeatzeko jardunak dira garapen iraunkorreko ikuspegitik paisaia egokiro mantentzea xede duten ekintzak, prozesu sozial eta ekonomikoek eta ingurumen-prozesuek eragindako transformazioak gidatu eta egokitze aldera.

4.- Paisaia antolatzeko jardunak dira paisaiak bere oneratu, hobetu edo sortzeko egiten direnak, etorkizunari begira nabarmenki.

5.- Esku hartzen den eremu bakoitzean, eremuaren izaeraren eta eremurako finkatutako helburuen arabera izan behar du paisaiaren gaineko hiru jardun moten arteko orekak.

7. artikulua.- Paisaia-politikako elkarlana.

1.- Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen artean paisaia-politika koordinatuak gara daitezen sustatuko du, Lege honetan ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatze aldera.

2.- Eusko Jaurlaritzak beste administrazio batzuekiko akordioak sustatuko ditu, egoki irizten zaizkien arloetan paisaiari buruzko egitamu erkideak ezartze aldera.

8. artikulua.- Paisaiaren gaineko jardunen helburuak.

Paisaiaren gainean gauzatzen diren jardunek honako helburu hauek izan ditzakete, besteak beste:

a) Berezko izaeragatik edo kultur izaeragatik jardun espezifikoko integratuak behar dituzten paisaiak kontserbatzea.

b) Hirietako paisaiak hobetzea, bereziki aldirietakoak eta biztanle-guneetara sartzeko bideetakoak.

c) Landa-inguruetako paisaiak zaindu, hobetu eta bere oneratzeari.

d) Paisaiak harmoniaz antolatzea, arreta berezia jarritz herritar guztien eskurago daudenei, hiri-eta landa-eremuek elkar ukitzen duten eremuei eta lehorrak eta itsasoak elkar ukitzen duten eremuei.

e) Lurraldearen gaineko ekintzak egokiro integratzea paisaian, batez ere azpiegiturei eta jarduera ekonomikoetarako eremuei dagozkien ekintzak.

f) Toki-administrazioek eta erakunde pribatuek paisaiaren balioa agerian jartzea eta babestea.

g) Paisaiari balioa ematea, faktore ekonomiko bereizgarri gisa eta turismorako baliabide gisa.

II. KAPITULUA PAISAIA BABESTU, KUDEATU ETA ANTOLATZEKO TRESNAK

9. artikulua.- Paisaia babestu, kudeatu eta antolatzekeo tresnak.

Lege honek honako tresna hauek ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko paisaiak egokiro babestu, kudeatu eta antolatuko direla bermatzeko:

- a) Paisaiaren katalogoak.
- b) Paisaiari buruzko gidalerroak.
- c) Paisaiaren arloko ekintza-planak.
- d) Paisaia-integrazioko azterlanak.

10. artikulua.- Paisaiaren katalogoak.

1.- Paisaiaren katalogoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko eremu funtzional bakoitzeko paisaia osoa hartzen duten deskripzio- eta prospekzio-agiriak; Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan daude ezarrita zeintzuk diren Euskal Autonomia Erkidegoko eremu funtzionalak.

2. Paisaiaren katalogoak egiteko, sektore publikoek eta pribatuek egokiro parte hartzea hartu behar da oinarritzat, eta kontuan har daiteke eremu funtzional bakoitzeko paisaiari buruz dagoen ezagupena, bereziki Euskadiko administrazioek paisaiaren arloan ezartzen dituzten politiketatik eta jardunetatik sortzen dena.

3.- Eremu funtzional bateko paisaiaren katalogoek ondoko eremuetakoen jarraipen izan beharko dute, eta koherentzia izan beharko dute elkarren artean.

4.- Eremu funtzional bakoitzeko paisaiaren katalogoak paisaiari buruzko gidalerroetan jasoko dira, eta haiekin batera izapidetu eta onartuko dira.

11. artikulua.- Paisaiaren katalogoen edukia.

Paisaiaren katalogoek honako osagai hauek izango dituzte, gutxienez:

- a) Eremu funtzional bakoitzean diren ikuspen-arro eta paisaia-ehundurak identifikatu eta zedarritu behar dituzte, eta haien ezaugarriak ezarri. Ikuspen-arroa da eskala jakin bateko ikuspen-irizpideak erabiliz hauteman ahal den lurralde-unitate erlatiboki homogenea, eta, aldiz, paisaia-ehundura da eskala eta bereizmen-maila jakin baterako hautemate-irizpideak erabiliz hauteman ahal den lurralde-unitate erlatiboki homogenea.
- b) Paisaia-interes bereziko eremuak identifikatu behar dituzte, honako irizpide hauetako bat edo batzuk erabiliz:
1. Berezitasuna,
 2. Paisaia bakan edo mehatxatuen eredu adierazgarria izatea,
 3. Kalte-beratasuna,
 4. Bereziki hondaturik edo degradaturik egotea,
 5. Herritarren oso agerian egotea,
 6. Eremu funtzionalaren identitatea eratzeko erabakigarria izatea, edo,
 7. Ikuspen- edo estetika-ezaugarri bikainak edukitzea, osagai naturalek eta giza osagaiak elkarri eragiten dioten modu bereziaren ondorioz.
- c) Paisaiaren egungo konfigurazioari nabarmenen eragiten dioten edo eragin dioten jarduerak, erabilerak eta prozesuak identifikatu behar dituzte.
- d) Paisaia hautemateko ibilbide nagusiak eta lekuak kokatu behar dituzte espazioan.
- e) Paisaia-unitateak zedarritu behar dituzte; horretarako, paisaia-unitatetzat joko dira paisaiaren aldetik koherenteak izanik, paisaia babesteko, kudeatzeko edo antolatzeke araubide espezifiko bat, partez edo osoki, hartzeko gai diren eremuak.
- f) Paisaia-kalitateko helburuak definitu behar dituzte; kolektibitateak bere inguruko paisaiaren ezaugarriari buruz dituen nahiak adierazi behar dituzte paisaia-kalitateko helburu horiek.
- g) Ezarritako paisaia-kalitateko helburuak iristeko beharrezkoak diren neurriak eta ekintzak proposatu behar dituzte.
- h) Paisaiari dagozkion adierazleak proposatu behar dituzte, paisaia-kalitateko helburuak iristeko ezarritako neurri eta ekintzek zer-nolako eraginkortasuna izan duten ebaluatzeke modua izate aldera.

12. artikulua.- Paisaiari buruzko gidalerroak.

1.- Paisaiari buruzko gidalerroak xedapenak dira, lotesleak edo, hala badagokio, gomendioak baino ez, kasuan kasuko lurralde-plan partzialetan paisaia-kalitateko helburuen proposamenak eta helburu horiek iristeko berariazko neurri eta ekintzak zehazten eta arau gisa jasotzen dituztenak, betiere paisaiaren katalogoetan oinarriturik.

2.- Lurralde-plan partzialetako xedapenen artean, nahitaez jaso beharko dira paisaiari buruzko gidalerroak.

13. artikulua.- Paisaiaren arloko ekintza-planak.

1.- Paisaiaren arloko ekintza-planak kudeaketa-tresnak dira, paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeke jardunen eremuan gauzatu beharreko ekintzak zehazten dituztenak, paisaiaren katalogoetan eta paisaiari buruzko gidalerroetan oinarriturik.

2.- Paisaiaren arloko ekintza-planak paisaiaren katalogoetan identifikatutako paisaia-interes bereziko eremuetarako landu beharko dira; aukeran izango da beste eremu batzuetarako ere lantzea.

3.- Eragile publiko eta pribatuen arteko ituntze-tresnen esparruan idatzi eta gauzatu ahal izango dira paisaiaren arloko ekintza-planak.

4.- Paisaiaren arloko ekintza-planak egin, onartu eta gauzatzea dena delako esparrua kudeatzeko ardura duten organoei (edo organoari) dagokie.

5.- Paisaiaren arloko ekintza-plana egiteko ardura duen organoak herritarren parte-hartze egokia bermatuko du.

6.- Paisaiaren arloko ekintza-planetan, dagokion esparruan gauzatu beharreko ekintzak aipatuko dira banan-banan, eta, ekintza horietako bakoitzari buruz ere, honako hauek zehaztuko dira:

a) Nortzuk diren ekintzak gauzatzeko arduradunak, eta nortzuk diren ekintza-planak nola gauzatzen diren zaintzeko arduradunak,

b) Ekintzak garatzeko epeak,

c) Ekintzaren aurrekontua eta finantzaketa.

7.- Paisaiaren arloko ekintza-planetan, ekintzak noraino betetzen diren zaintzeko eta emaitzak ebaluatzeko programa bat jaso beharko da.

14. artikulua.- Paisaia-integrazioko azterlanak.

1.- Paisaia-integrazioko azterlanak agiri teknikoak dira, obra- eta jarduera-proiektuen gauzatzeak paisaiaren gainean eragiten dituen ondorioak aztertzeko, eta obra eta jarduera horiek paisaian egokitasunez integratzeko onartutako irizpideak eta neurriak azaltzeko idazten direnak.

2.- Paisaia-integrazioko azterlana honako kasu hauetan eskatuko da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5 artikuluan aipatzen diren jardunetan.

b) Lurralde- edo hirigintza-planeamenduak eskatzen duenean.

c) Legeek edo xedapen orokorrek ezartzen dituzten kasu guztietan.

3.- Obra- eta jarduera-proiektuen gauzatzea onartzeko eta/edo baimentzeko eskumena duen administrazioari dagokio paisaia-integrazioko azterlana ebaluatzea, eta obra edo jarduera horiek paisaian egokitasunez integratzeko irizpideak eta neurriak erabakitzea.

4.- Erregelamendu bidez ezarriko da zein izango den paisaia-integrazioko azterlanen edukia.

III. KAPITULUA

PAISAIA-POLITIKAK ANTOLATZEKO, SUSTATZEKO ETA HAI EI BURUZKO SENTIBERATASUNA ERAGITEKO TRESNAK

15. artikulua.- Paisaiaren Behatokia.

1.- Paisaiaren Behatokia da aholkularitza-organo bat, lurralde-antolamenduaren arloan eskumena duen sailari atxikia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari paisaia-politikak landu, aplikatu eta kudeatzearekin zerikusia duten kontu guztietan laguntzeko eta harekin elkarlanean aritzeko eginkizuna duena.

2.- Paisaiaren Behatokiak ordezkari zaabala izan beharko du, lurraldearen eta paisaiaren gainean jarduten diren edo lurraldearekin eta paisaiarekin zerikusia duten era bateko eta besteko eragileena, hain zuzen. Zehazki esateko, Eusko Jaurlaritzaren sailek, foru-aldundiek, udalek eta tokiko beste erakunde batzuek izan behar dute ordezkari bertan, baita sektore sozial, profesional eta ekonomikoek ere.

3.- Hauek dira Paisaiaren Behatokiaren eginkizunak:

- a) Lau urtean behin, Euskal Autonomia Erkidegoko paisaiaren egoerari buruzko txostena onartzea. Txosten horretan, gainera, egoeraren diagnostikoa egin beharko da, eta ezarritako helburuak eta estrategiak noraino bete diren ebaluatu beharko da. Txostena Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaio.
- b) Paisaiaren katalogoen eta paisaiari buruzko gida-lerroen gaineko txostenak egitea, nahitaez.
- c) Aholkularitza zientifiko tekniko ematea.
- d) Euskal gizartea gure paisaiak behar bezala babestu, kudeatu eta antolatu beharri buruz heztea, sentsibilizatzea eta kontzientziaztea.
- e) Paisaiari buruzko proposamenak egitea.
- f) Paisaiaren arloan lankidetzak zientifiko eta akademikoak sustatzea, eta unibertsitateetako eta beste erakunde akademiko eta kultural batzuetako espezialistek eta adituek lanak eta esperientziak truka ditzaten bultzatzea.
- g) Lege honen printzipioekin eta helburuekin bat datorren beste edozein.

16. artikulua.- Sentiberatzeko, hezteko eta laguntzeko neurriak.

1.- Euskadiko administrazioek sustatuko dute gizarteak, erakunde pribatuek eta botere publikoek lege honetako printzipio eta helburuei buruzko sentiberatasuna har dezaten.

2.- Eusko Jaurlaritzak sustatuko du paisaia aintzat har dadin hezkuntza-maila batzuetako eta besteetako programetan eta, bereziki, espezialistak prestatzeko programetan. Halaber, esperientzia-trukea sustatu beharko du, eta laguntza eman behar die paisaiari buruzko ikerketa-proiektuei eta paisaiari buruzko ezagupenak zabaltzeko proiektuei.

3.- Eusko Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan eta eskura dituen baliabideen arabera, laguntza emango du foru- nahiz toki-administrazioek eta era bateko eta besteko erakunde publiko eta pribatuek paisaia babesteko eta sustatzeko gauzatzen dituzten jardueretarako.

17. artikulua.- Laguntzak eta dirulaguntzak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak bere esku du laguntzak eta dirulaguntzak ematea, erakunde publiko edo pribatuek, lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan ezarritako printzipio eta helburuekin bat etorritik, paisaiaren arloan gauzatzen dituzten ekintzetarako.

2.- Erregelamenduz arautuko dira paisaiaren arloko ekintzetarako finantzaketa publikoa eskuratzeko bete beharko diren baldintzak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1.- Paisaiari buruzko gidalerroak lege hau indarrean sartzeko behin betiko onartuta dauden lurralde-plan partzialetan jaso beharko dira. Hala bada, lau urteko epearen barruan izapidetu eta onartu beharko dira, Lurralde Plan Partziala onartzeko prozedurari jarraituz, betiere aurrerapen-faserik gabe (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13. artikuluan dago ezarrita prozedura).

2.- Bestalde, lege hau indarrean sartzeko hasierako onarpena emanda duten lurralde-plan partzialen izapideek aurrera jarrai dezakete, paisaiari buruzko gidalerroak jaso beharrik gabe; lurralde-plan partzialak behin betiko onartutakoan sartuko dira gidalerroak, 1. xedapen iragankorrek aipatzen dituen epe eta baldintzen arabera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzak 2 urteko epean emango ditu lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak.

Bigarrena.- Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.